



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## 2021EKO MAIATZAREN 26AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### 28. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren 26an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).  
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).  
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).  
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).  
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).  
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).  
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).  
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).  
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).  
Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarburen J. (EH BILDU).  
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).  
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).  
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).  
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorriak:  
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).  
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).

Idazkari lanetan: Izaro Sudupe Altuna, Kontratazio eta Pertsonaleko Administrazio Orokorreko Teknikaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

2021eko apirilaren 28ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

**Abstentzioak:** Iraitz Otaño Mujika.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko apirilaren 28an egindako bilkuraren akta onartzea gehiengoz erabaki du.

## **2.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO AZKOITIKO UDALEKO 2 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

### **“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA**

#### **1.- AURREKARIAK**

2021urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta epediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

### **TXOSTENA**

#### **AZKOITIKO UDALA**

#### **KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA**

#### **KREDITU GEHIGARRIA 2/2021**



## AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

### ARAUDI APLIKAGARRIA:

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa

Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu-Araua, toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

### AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

#### 1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

##### 1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA  
SAN JOSE EGOITZA  
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

##### 1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

##### Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu onarpenaren espedienteak -3.206.187,15 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onaturiko kreditu aldaketak 2020ko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziazioa.

<b>KREDITU ALDAKETAK</b>	<b>Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2020ko aurrikusiriko gerakina</b>
--------------------------	--



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kreditu txertaketa 1/2020	1.343.493,35
Kreditu txertaketa 2/2020	612.889,06
Kreditu gehigarria 1/2020 udala	509.519,18
Kreditu gehigarria Elkargune 1/2020	25.000,00
Kreditu gehigarria 2/2020 udala	148.500,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.639.401,59</b>

Honegatik doiketa 2.639.401,59€koa da eta ondorioz **espedienteak - 566.785,56 euroko defizita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaindituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2021erako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hauxe da:

Azkoitiko Udalaren kasuan 1.242.217 € da defizit muga, 2.2 artikulua arabera.

Hori dela eta, Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, 2/2021 kreditu gehigarriak, behin gerakinaren doiketa eginda, 9/2020 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

### Finantzen iraunkortasuna

2021eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.106.188,38€, 2020an likidatutako sarrera arrunten (13.968.337,66€) % 36,55 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2021eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2021erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2021erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2021ean.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udalaren kasuan, 2021ean, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 36,55 a hain zuzen.

Gastuaren araua

	2021	2020 LIKIDAZIOA
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	17.260.047,15	12.851.207,94
Zorraren interesak:	43.272,87	37.206,67
SEC doikuntzak:		
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzaturako gastua:	695.100,00	730.245,11
<b>Gastu konputagarria:</b>	<b>16.521.674,28</b>	<b>12.083.756,16</b>
Gastu konputagarriaren hazkundera	36,72%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2021erako ez dago ez hazkunderaren erreferentzi tasarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 9/2020 foru Dekretu arauaren arabera.

### 1.3.- ONDORIOAK

9/2020 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira txostenean aztertu ditudan hiru arau fiskalak.

Esan behar da egonkortasun helburuari dagokionez, Kreditu aldaketa honek, behin gerakinaren doiketa eginda, defizit egoera helarazten duela - 566.785,56takoia , baina defizit kopuru hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari lagatzen dion defizit mugaren azpitik dagoela, 1.242.217 € baita Azkoitiari dagokiona, 2.2 artikulua arabera.

Une batean Udalak defizit helburua gaindituz gero, behartuta egongo da plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Honez gain 9/2020 Foru dekretu arauaren 1.3 artikulua arabera diruzaintzako gerakina erabili daiteke kreditu aldaketak finantzatzeko, arau fiskalak eteteak berekin bait dakar, eten egingo dela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna.

Azkoitian, 2021eko maiatzak 17an  
Kontuhartzaileak



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

**IRIZPENA**

**LEHENENGO:** Proposamenean zerrendatzen diren Azkoitia Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 148.500,00€ zenbatekoa.

SARRERENKONTZEPTU EDOTA GASTUEN PARTIDA	BALIA BIDEEN KONTZEPTUA	EGUNEKO KREDITUAK	SARRERA HALNDIAGO GASTU BAJAK	EEHINEETIKO KREDITUAK
CONCEPTO DE INGRESOS O PARTIDA DE GASTOS	CONCEPTO DEL RECURSO	CREDITOS ACTUALES	MAYORES INGRESOS Y O BAJAS EN GASTOS	CREDITO DEFINITIVO
2 1000,870,000,00,01	Diruzaintzako garakina gastu orokorretako/Remanente de Tesorería para gastos generales	2.214.718,66	148.500,00	2.363.218,66
	<b>SARRERA HALNDIAGOAK GUZTIRA/TOTAL MAYORES INGRESOS</b>	<b>2.214.718,66</b>	<b>148.500,00</b>	<b>2.363.218,66</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.214.718,66</b>	<b>148.500,00</b>	<b>2.363.218,66</b>
<b>GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA</b>				
<b>PROPUESTA DE REALIZACIÓN DE GASTOS Y LA CORRESPONDIENTE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS</b>				
AURREKONTUKO PARTIDA PARTIDA PRESUPUESTARIA	IZENA DENOMINACIÓN	EGUNEKO KREDITUAK CREDITOS ACTUALES	GEHIGUNTZAK AUMENTOS	GUZTIRA TOTAL
3300,211,323,30,00	Ilaskiola Mantenua	39.000,00	26.000,00	65.000,00
6000,227,333,10,01	kultur etxearen garbiketa	28.000,00	5.000,00	33.000,00
	<b>GUZTIRA KAP 2</b>	<b>67.000,00</b>	<b>31.000,00</b>	<b>98.000,00</b>
3100,644,333,60,00	WiFi Baztertxo	0,00	7.500,00	15.730,00
2000,601,160,00,02	Aizkibel, Floreaga Gipuzkoako Urakekin hitzarmena	0,00	68.000,00	68.000,00
2000,622,164,00,01	Hlemiko kaperako telatua	0,00	42.000,00	42.000,00
	<b>GUZTIRA KAP 6</b>	<b>134.000,00</b>	<b>117.500,00</b>	<b>125.730,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>201.000,00</b>	<b>148.500,00</b>	<b>223.730,00</b>

**BIGARRENA:** Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko maiatzaren 20an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Iraitz Otaño, Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitiak azaldu du gaia.

*Diruzaintza gerakina erabiliz osotasunean egin dela kreditu aldaketa esan du (2021eko ekainaren 30eko Udalbatza plenoak zuzenduta).*

Ikastolako mantenura 26.000€ bideratuko dira, Kultur-etxearen garbiketara 5.000€. Ikastolako karpa gastu estra bat izan dela aipatu du.

Hiru inbertsio berri egin direla esan du ondoren:

- Baztartzoko wifi-a 7.500€, sarrera online ezarri dela eta, wifi berritzea komeni dela dio. Kultur taldeen aldetik ere eskaera egon da.
- Teklako etxeetarako espaloia berritzea 68.000€, Gipuzkoako Urak-ek zati bat nahi du konpondu.
- Hilerriko kaperako 42.000€. Egoera eskasean dagoela teilatua esan du, Gipuzkoako Foru Aldundiari dirulaguntza eskatuko zaio.

Jose Joakin Etxaniz jaunak kreditu aldaketak daramatzen puntuak banan bana erantzun ditu.

Alkate J.k. puntu guztiak banaka erantzuteak plenoa asko luzatu dezakeela esan du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, arrazoiak herritarrei banaka eman nahi izan dizkiela dio. Plana eskatu zutela, eta jaso ondoren, baloratuta baiezko bozka iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarburen, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko udaleko 2 zenbakidun espediente hasieraz onartzea aho batez erabaki du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

### **3.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO ZUBIAURRE- ELKARGUNE INSTITUTUKO 2 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

#### **“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA**

##### **1.- AURREKARIAK**

2021urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

#### **TXOSTENA**

#### **ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA**

#### **KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA**

#### **KREDITU GEHIGARRIA 2/2021**

#### **AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa

Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu-Araua, toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

#### **AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA**





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA  
SAN JOSE EGOITZA  
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu onarpenaren espedienteak -3.320.187,15 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakok sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakok gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2020ko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziazioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2020ko aurikusiriko gerakina
Kreditu txertaketa 1/2020	1.343.493,35
Kreditu txertaketa 2/2020	612.889,06
Kreditu gehigarria 1/2020 udala	509.519,18
Kreditu gehigarria Elkargune 1/2020	25.000,00
Kreditu gehigarria 2/2020 udala	148.500,00
Kreditu gehigarria 2/2020 Elkargune	114.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.753.401,59</b>

Honegatik doiketa 2.753.401,59€koa da eta ondorioz **espedienteak - 566.785,56 euroko defizita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakok sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakok gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaindituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2021erako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hauxe da:

Azkoitiko Udalaren kasuan 1.242.217 € da defizit muga, 2.2 artikulua erabera.

Hori dela eta, Zubiaurre Elkargune Institutuaren Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, 2/2020 Kreditu gehigarriak behin gerakinaren doiketa eginda, 9/2020 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

### Finantzen iraunkortasuna

2021eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.106.188,38€, 2020an likidatutako sarrera arrunten (13.968.337,66€) % 36,55 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2021eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2021erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2021erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udalaren kasuan, 2021ean, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 36,55 a hain zuzen.

### Gastuaren araua

	2021	2020 LIKIDAZIOA
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	17.374.047,15	12.851.207,94
Zorraren interesak:	43.272,87	37.206,67
SEC doikuntzak:		
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	695.100,00	730.245,11
<b>Gastu konputagarria:</b>	<b>16.635.674,28</b>	<b>12.083.756,16</b>
Gastu konputagarriaren hazkundera	37,66%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2021erako ez dago ez hazkunderaren



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

erreferentzi tasarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 9/2020 foru Dekretu arauaren arabera.

### 1.3.- ONDORIOAK

9/2020 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira txostenean aztertu ditudan hiru arau fiskalak.

Esan behar da egonkortasun helburuari dagokionez, Kreditu aldaketa honek, behin gerakinaren doiketa eginda, defizit egoera helarazten duela -566.785,56 €takoa, baina defizit kopuru hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari lagatzen dion defizit mugaren azpitik dagoela, 1.242.217 € baita Azkoitiari dagokiona, 2.2 artikulua araberan.

Une batean Udalak defizit helburua gaudituz gero, behartuta egongo da plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Honez gain 9/2020 Foru dekretu arauaren 1.3 artikulua araberan diruzaintzako gerakina erabili daiteke kreditu aldaketak finantzatzeko, arau fiskalak eteteak berekin bait dakar, eten egingo dela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna.

Azkoitian, 2021eko maiatzak 17an  
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

### IRIZPENA

**LEHENENGO:** Proposamenean zerrendatzen diren ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOAREN gastuen aurrekontu partiden arteko 2/2020 kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 114.000,00 € zenbatekoa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

SARREREN KONTZEP EDOTA GASTUEN PARTIDA	BALIABIDEN KONTZEP TUA	EGUNEKO KREDITUAK	SARRERA HALNDIAGO GASTU BAJAK	EEHIN BETIKO KREDITUAK
CONCEPTO DE INGRESOS O PARTIDA DE GASTOS	CONCEPTO DEL RECURSO	CREDITOS ACTUALES	MAYORES INGRESOS Y O BAJAS EN GASTOS	CREDITO DEFINITIVO
2 1000,870,000,00,01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretako/Remanente de Tesorería para gastos generales	25.000,00	114.000,00	139.000,00
	<b>SARRERA HALNDIAGOAK GUZTIRA/TOTAL MAYORES INGRESOS</b>	<b>25.000,00</b>	<b>114.000,00</b>	<b>139.000,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>25.000,00</b>	<b>114.000,00</b>	<b>139.000,00</b>
<b>GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA</b>				
<b>PROPUESTA DE REALIZACIÓN DE GASTOS Y LA CORRESPONDIENTE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS</b>				
ALREKONTUKO PARTIDA	IZENA	EGUNEKO KREDITUAK	GEHIGUNTZAK	GUZTIRA
PARTIDA PRESUPUESTARIA	DENOMINACIÓN	CREDITOS ACTUALES	AUMENTOS	TOTAL
0000,623,342,00,01 2021	Onding Bizikletak	0,00	55.000,00	55.000,00
0000,623,342,00,03 2021	Elkargunearen sarrera Nagusia	2.000,00	5.000,00	7.000,00
0000,623,342,00,07 2021	Eraikin Karpoan atteen aurreko estalkiak	7.000,00	44.000,00	51.000,00
0000,623,342,00,07 2021	Gimnasioako Makina-Arriatasun Funtzionala	0,00	10.000,00	10.000,00
	<b>GUZTIRA KAP6</b>	<b>9.000,00</b>	<b>114.000,00</b>	<b>123.000,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>9.000,00</b>	<b>114.000,00</b>	<b>123.000,00</b>

**BIGARRENA:** Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko maiatzaren 20an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Iraitz Otaño, Itziar Joaristi

Ana Azkoitia andreak esan du nahiz eta Elkarguneko Artezkaritza Batzordean bertan onartu zen, Udalbatza Plenoan ere onartu behar dela.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jarraian, adierazi du, *erabiliko den gerakina 114.000€koa izango dela (2021eko ekainaren 30eko Udalbatza plenoak zuzenduta)* eta ondorengo inbertsioak egiteko erabiliko dela:

- Cycling bizikletak erosteko.
- Elkargunearen sarrera nagusia berritzeko, kanpoan aterpea izateko.
- Covid19-a dela eta irekita egoten denez, kantxarako sarreran lurra izorratzen ari dela eta estalpea ezartzea beharrezkoa iritzi dela.
- Gimnasioko makina, aniztasun funtzionala dutenenentzat; eskaera hau Azkoitia Lagunkoia ekimenetik etorri zela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak inbertsio berriei buruzko bere iritzia eman die batzarkideei.

Ana Azkoitia andreak esan du bizikleta zaharrek zer egin aztertzeko hitz egingo dutela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Zubiaurre-Elkargune Institutuko 2 zenbakidun espedientea hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

**4.- AZKOITIKO UDALERRIKO KALE GARBIKETA ZERBITZU KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENAREN ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**

**Ebazteko organoa:** Azkoitiko udaleko Udalbatza Plenoa



**Gaia:** Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzu kontratuaren bigarren luzapena

**Esp. Zkia:** 2021COLU0002

### **AURREKARIAK**

I.- Azkoitiko udaleko Udalbatza Plenoak 2015eko urriaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, **Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua** jardunbide ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientea eta kontratazio jardunbideari hasiera ematea onartu zituen. Aldi berean, lizitaziorako oinarri gisa erabiliriko Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria – bere eranskinekin - eta gastuaren konpromisoa hartu eta fiskalizatzea onartzea erabaki zuen.

II.- Kontratazio-jardunbidea garatu ostean, Azkoitiko udaleko Udalbatza Plenoak 2016ko apirilaren 27 egindako bilkuran, besteak bestek, ondoko akordioak hartu zituen:

**“LEHENA.- “Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua”, SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresari esleitzea.**

**BIGARRENA.- Kontratuaren urteko prezioa ondorengoa izatea: 720.229,83€ %10eko BEZa barne, horietatik 654.754,39€ printzipalari dagozkio eta 65.475,44€ %10eko BEZari.**

Zerbitzu hori, ondorengo aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da:  
1.6000.227.163.00.01

Kontratuaren iraupena **LAU (4) URTEKOA** izatea, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Halaber, kontratuaren iraupena bi (2) urtez, urtez-urte, luzatu ahal izango da.

**HIRUGARRENA.- Esleipendunak Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren II. Eranskinean jasotako langileak hartzeko betebeharra du eta Gipuzkoako lurralde esparruan Bide Garbiketa Publikoa ematen duten langileei aplikagarria zaien hitzarmen kolektiboaren xedapenak errespetatu beharko ditu (2013ko uztailaren 26ko GAO n. 142. zenbakian argitaratua).**

**LAUGARRENA.- Erabaki hau SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresa esleipendunari, gainontzeko lizitatuzaileei eta Kontu-hartzailetzako Departamentuari jakinaraztea.**

**BOSGARRENA.- Esleipendunari ohartaraztea, kontratazio honetan, kontratazio alorreko errekurtsio berezia tarteka daitekeenez, lizitatuzaileei esleipenaren jakinarazpena igortzen zaienetik zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epea igaro arte, ezin izango duela kontratua formalizatu.**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Epe hori igarota, kontratuaren formalizazioaren etetea dakarren errekurtsorik tartekatu ez bada, hori formalizatzeko errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita **gehenez bost (5) eguneko epean**, kontratua formalizatzera etor dadin Azkoitiko Udalera errekerituko zaiola eta ondorengo agiriak aurkezteaz batera:*

*Jendaurreko publizitateko gastuen ordainagiria aurkeztea, hain zuzen, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko iragarkie dagozkienak. Esleipendunak hitzarmena sinatzerako garaian, iragarkien ordainketa egin duela egiaztatuko du, Azkoitiko Udaleko Kontuhartzaitza Sailean. Zerbitzuari atxikitako langile guztien lan kontratuen kopia. Antolakuntza prebentiboaren ereduaren ziurtagiria. Jardueraren arriskuen ebaluazioa.*

*Halaber, **kontratua formalizatzen denetik bi hilabeteko epean**, kontratistak honako agiriok aurkeztu beharko ditu:*

- Bere lanpostuan aritzeko langileen mediku-gaitasunaren ziurtagiria.*
- Langileek, egiten duten jarduerari buruzko beharrezko informazio eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.*
- Langileen lanpostuen jardueretarako beharrezkoak diren Norbera Babesteko Ekipamenduen entrega ziurtagiria eta hauek erabiltzeko beharrezko informazio eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.*
- Langileek sinaturiko dokumentua, enpresa kontratatzailean lanak garatzeko beharrezko informazio eta argibideak jaso dituztela egiaztatzen duena.*

**SEIGARRENA.-** *Kontratua formalizatuz gero, iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 48 eguneko epean eta Udaleko kontratugilearen profilean.*

**ZAZPIGARRENA.-** *Behin kontratazio jardunbideari amaiera emanda, kontratu honen oinarrizko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.”*

**III.-** *Hori horrela, 2016ko ekainaren 1ean, Azkoitiko Udaleko Alkate-Udalburuak eta SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresako ordezkariak, “Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua” esleitzea xede duen kontratua formalizatu zuten, data horretatik sortuz administrazio-eraginak.*

**IV.-** *Kontratuaren indarraldia, bi aldeek izenpeturiko kontratuaren 3. klausulan xedatzen denaren arabera, lau urtekoa izaki, 2020ko maiatzaren 31an amaitu zen.*





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Halaber, klausula berean luzapenaren inguruan xedaturikoarekin bat eta bi aldeen adostasunarekin, Udalbatza-Plenoak 2020ko maiatzaren 27an honako akordioak hartu zituen kontratuaren lehen luzapenaren inguruan:

**“LEHENA.– AZKOITIKO UDALERRIKO KALE GARBIKETA ZERBITZUA xede duen kontratuaren iraupena urtebetez luzatzea, Ingurumen teknikariak eta Udal-kontu-hartzaileak euren txostenetan adierazitako baldintzak kontuan hartuz.**

**BIGARRENA.– Kontratuaren luzapenaren hileko prezioa 60.019,15€ %10eko BEZa barne izango da, horietatik 54.562,86€ printzipalari dagozkio eta 5.456,29€ %10eko BEZari.**

**HIRUGARRENA.– Kontratuaren luzapenaren iraupena – urtebetekoa - 2020ko ekainaren 1etik 2021eko maiatzaren 31arte izatea.**

**LAUGARRENA.– SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritza gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzerantz bertaratu dadin.**

**BOSGARRENA.– Luzapenaren formalizazio iragarkia Azkoitiko Udaleko kontratugilearen profilean argitaratzea.**

**SEIGARRENA.– Erabaki honen berri Kontu-hartzailetzako Departamentuari ematea.**

**ZAZPIGARRENA.– Luzapen honen oinarrizko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.”**

**V.– Kontratuaren lehen luzapenaren indarraldia 2021eko maiatzaren 31ean amaituko dela aintzat hartuta, Ingurumen eta Zerbitzuetako teknikariak, arloko zinegotziaren oniritziarekin, kontratua beste urtebetez luzatzeko aldeko txostena eman du, espedientean jasota dagoena.**

Bestalde, SERBITZU ELKARTEA, S.L. ordezkariak, 2021eko apirilaren 28ko datan – Erregistroko 1683-2021 sarrera zenbakiarekin –, Azkoitiko udalarekin 2016ko ekainaren 1ean izenpeturiko “Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua” xede duen kontratua urtebetez luzatzeko adostasuna agertu du.

**VI.– Luzapenaren inguruko ebazpena hartu ahal izateko, 2021eko ekitaldian zerbitzu hori finantzatzeko beharrezkoak diren diru-izendapenak badaudela eta 2022ko ekitaldiari dagokionean, beharrezkoak direnak egingo direla adierazi du Udal-kontu-hartzaileak, espedientean jasota dagoena.**





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## KONTUAN HARTURIK

Kontratazio eta Pertsonaleko A.O.T.k, Udal-Idazkariak ontzat emanik, jarraian zehazten den lege txostena eman duela:

**“ARAUDI APLIKAGARRIA.-** Egun kontratazio arloan indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen I. Xedapen Iragankorrek, aipatu Legea indarrean sartu aurretik hasiriko kontratazio espedienteen eta esleituriko kontratuei aplikagarri zaien legediaren inguruan ondokoa xedatzen du:

**“Disposición transitoria primera. Expedientes iniciados y contratos adjudicados con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley.**

**1. Los expedientes de contratación iniciados antes de la entrada en vigor de esta Ley se registrarán por la normativa anterior. A estos efectos se entenderá que los expedientes de contratación han sido iniciados si se hubiera publicado la correspondiente convocatoria del procedimiento de adjudicación del contrato. En el caso de procedimientos negociados sin publicidad, para determinar el momento de iniciación se tomará en cuenta la fecha de aprobación de los pliegos.**

**2. Los contratos administrativos adjudicados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley se registrarán, en cuanto a sus efectos, cumplimiento y extinción, incluida su modificación, duración y régimen de prórrogas, por la normativa anterior.**

**3. La presente Ley será de aplicación a los acuerdos de rescate y a los encargos que se realicen con posterioridad a su entrada en vigor. Deberá entenderse que un encargo se ha realizado cuando haya sido objeto de la correspondiente formalización documental.**

...”

Aipatu zerbitzua esleitzeko erabiliriko jardunbidea irekia izan zela eta deialdia 9/2017 Legea indarrean sartu aurretik argitaratu zela aintzat hartuta, **kontratu honen bigarren luzapenari aplikagarria zaion legedia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea da.**

**ARAUBIDE JURIDIKOA.-** Luzapenari dagokionean, bai Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 3. klausulak baita bi aldeek sinaturiko kontratuaren 3. klausulak ere, kontratuaren iraupena lau urtekoa izango dela jasotzen du. **Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea urtez urte bi urtez, gehienez sei urterako, luzatu ahal izango dela xedatzen du, berariaz eta bi aldeen adostasunarekin, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 303. artikulua xedaturikoari jarraiki.**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Halaber, *Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 23. artikulua*ren 2. atalak honako hau xedatzen du:

*“2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el periodo de duración de éstas y que la concurrencia para su adjudicación haya sido realizada teniendo en cuenta la duración máxima del contrato, incluidos los periodos de prórroga.*

*La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, salvo que el contrato expresamente prevea lo contrario, sin que pueda producirse por el consentimiento tácito de las partes.”*

**Luzatzea proposatu den kontratua beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 23.2 artikulua eta bereziki zerbitzu kontratuen iraupena arautzen duen 303. artikulua xedaturikoa betez egingo da.**

Bestalde, kontuan izan behar da, kontratuaren luzapenak, prezioaren berrazterketa ekar badezake ere, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 7. klausula eta bi aldeek izenpeturiko kontratuaren bosgarren klausula xedaturikoaren arabera, hasiera batean, **kontratu honi ez dagokio prezioaren berrazterketarik**, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 89. artikuluan (Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren inguruko martxoaren 30eko 2/2015 Legeak aldatuak) xedaturikoarekin bat.

Dena den, klausula berean, ondokoa xedatzen da: *“eskulanaren kostuari loturiko lan arloko erabaki aldebakarra hartuz gero, eta horrek murrizten baditu kontratuari atxikitako langileen oinarrizko lan-baldintzak, kontratuaren prezioa ezartzeko oinarri izan zirenak, kudeaketa neurriak hartu beharko dira indarrean dauden kontratuen prezio berrikuspenera kalkulatzeko, betiere Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamenduak 97. artikuluan aurreikusitako izapideari jarraituz.” Ez da horrelakorik jakinarazi, beraz, ulertzen da kontratu honi ez dagokiola prezioaren berrazterketarik.*

Guztia kontuan hartuta, bidezkoa da kontratuaren bigarren luzapena formalizatzea, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako eta Udal-kontu-hartzaileak adierazitako baldintza ekonomikoetan eta prezioen berrikuspeneraren inguruan adierazitakoa kontuan hartuta.

**ORGANO ESKUDUNA.-** Kontratu honen lehen luzapena onartzeko eskumena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 2. atalak



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*xedaturikoaren arabera, Udalbatza Plenoarena da, hori baita aipatu kontratuko kontratazio organoa.”*

Beraz, Antolakuntza Batzordeak ondoko irizpenaren onespena proposatzen dio Udalbatza Plenoari:

## IRIZPENA

**LEHENA.- AZKOITIKO UDALERRIKO KALE GARBIKETA ZERBITZUA xede duen kontratuaren iraupena urtebetez luzatzea,** Ingurumen eta Zerbitzuetako teknikariak eta Udal-kontu-hartzaileak euren txostenetan adierazitako baldintzak kontuan hartuz.

**BIGARRENA.-** Kontratuaren luzapenaren **hileko prezioa 60.019,15€ %10eko BEZa barne** izango da, horietatik 54.562,86€ printzipalari dagozkio eta 5.456,29€ %10eko BEZari.

**HIRUGARRENA.-** Kontratuaren luzapenaren iraupena – urtebetekoa – **2021eko ekainaren 1etik 2022ko maiatzaren 31arte izatea.**

**LAUGARRENA.- SERBITZU ELKARTEA, S.L.** enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritza gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzerara bertaratu dadin.

**BOSGARRENA.-** Luzapenaren formalizazio iragarkia Azkoitiko Udaleko kontratugilearen profilean argitaratzea.

**SEIGARRENA.-** Erabaki honen berri Kontu-hartzailetzako Departamentuari ematea.

**ZAZPIGARRENA.-** Luzapen honen oinarrizko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko maiatzaren 20an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz ,

**KONTRAKO BOTOAK:** Iraitz Otaño, Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kale Garbiketa Zerbitzuaren esleipena lau urterako esleitu zela esan du, bi urtez luzatzeko aurkerarekin, urtez urte. 1. luzapena pasa den urtean onartu ondoren, orain bigarrena onartzea tokatzen dela. 2022. urtean lizitazio berria martxan jarri beharko dela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du lizitazio eta kontratazio mahaiak ondo eta legez egiten direla, baina herritarrak hori horrela ez dela pentsatzen dutenaren errezeloa dutela. Alegia, esleipenak askotan enpresa berdinei egiten zaizkiela.

Behar bada, udaletxetik ere herritarra informatzea ez litzatekeela gaizki egongo esan du bukatzeko.

Iraitz Otaño jaunak zerbitzua publikatzearen aldekoak direla esan du, beraz, aurka bozkatuko dutela.

Ana Azkoitia andreak kontratazioak irekiak izaten direla esan du eta Kontratazio Mahaia nagusiki udal teknikariez osatuta dagoela eta lizitatzaileren proposamenak teknikariek baloratzen dituztela, pleguetan ezarritako esleitzeko irizpideak kontuan hartuta. Beraz, prozedura horiek legez egiten direla eta hori berak jakin beharko lukeela, Kontratazio Mahaietara joaten baita eta organo horren funtzionamendua gertutik ikusten duela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak dio herritarren pertzepzioa dela eskuz ematen direla.

Ana Azkoitia andreak ezin dela orokortu esan dio, lizitazioak irekiak izaten direla. Pleguak atera, eta balorazioen ondoren, puntuazio altuena atera duenak irabazten duela. Zerbitzuetan, askotan, lizitazioak zailagoak izaten direla esan du, OARC-era bidali behar izaten direla batzuetan, lizitatzaileraren batek errekurtsioa tartekatzen badu.

Jose Joakin Etxaniz jaunak dio jendeak hori sumatzen duela, berari galdetuz gero, egoki egiten direla azaltzen dien arren.

Alkate Jk. esan du hori konfiantzarik ez edukitzea dela, ez Udal Gobernuan, ez udal egituran; gonbidatuta daudela Mahaietan parte hartzera talde politikoetako zinegotziak, eta lizitazioetan onenak irabazten duela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mendizabal Juaristi, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

**Kontrako botoak:** Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Iburguren.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzu kontratuaren bigarren luzapena onartzea gehiengoz erabaki du.

**5.- 2021EKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAREN ONESPENA, OSTALARIENTZAT MAHAI, MAHAITXO, AULKI, ZOLADURA, LOREONTZI, ITZALKIN EDO ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK DAGOKIEN TASETAN COVID 19 GAITZAREN KRISIAREN ONDORIOZ APARTEKO HOBARIEN INGURUAN.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEAK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO**

**IRIZPENA**

**GAIA: 2021KO MAHAI, MAHAITXO, AULKI, ZOLADURA, LOREOINTZI, ITZALKIN EDO ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK DAGOKIEN TASETAN APARTEKO HOBARIAK ONARTZEA OSTALARITZA KOLEKTIBOARENTZAT: COVID 19 GAITZAREN KRISIAREN ONDORIOZ**

**AURREKARIAK**

**Lehenengoa:** 2020ko abenduaren 2ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 11/2020 Foru Dekretu-Araua, 11/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriak ezarri zituen.

Foru dekretu Arau honen hemezortzigarren artikulua dio toki-erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituztela Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluko 3. atalaren arabera ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean, era honetara:

*18. artikulua. Tasen hobariak.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2021ean tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. tituluaren III. kapituluaren 3. Sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek jaso tze ko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboek aplikatu ahal izango zaie.

Artikulu honetan aipatutako hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan dezakete.

Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboek aplikatu ahal izango zaizkie.

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan ahalko dute.

**Bigarrenkoa: OSTALARITZA, BEREZIKI KALTETUTAKO KOLEKTIBOA:**

Ostalaritza arloari zuzenean eragin dien dekretuak zerrendatzen dira, bereziki kaltetutako kolektiboa izan dela ziurtatuz.

.-**Azaroaren 6ko 38/2020 Lehendakariaren dekretua** bitartez Ostalaritzako lokalak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak. erabat itxi ziren ia urte bukaera arte, eta honek galera ekonomiko handiak sortu zituen sektore honetan.

.-**2021eko Urtarrilaren 22ko 4/2021 DEKRETUAK**, Lehendakariarenak, prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean biltzen eta eguneratzen ditu, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Dekretu honek aldatu egiten du eranskinaren 9. ataleko 3. puntua, eta honela geratzen da idatzita

«3.- Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek, berriz irekitzeko gaituta badaude, aire zabaleko terrazetan eskaini ahal izango dute zerbitzua, eta gehienez ere edukieraren ehuneko berrogeita hamarreko erabilgarritasuna izango dute barruan. Mahai desberdinetan eserita dauden pertsonen artean, kanpoan zein barruan, gutxienez metro eta erdiko distantzia egokia mantentzen dela bermatu beharko da, nolahi ere. Mahai bakoitzeko bezero-taldeak ezin izango dira lau pertsona baino gehiagokoak izan, eta ezin izango dira bi mahai edo gehiago elkartu pertsona-kopuru handiagoko talde batentzat. Berariaz gomendatzen da establezimendu barruan telebistaz eskaintzen diren kirol-ekitaldiak taldean ez ikustea.

Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea, eta, barruan nahiz kanpoan, erabiltzaileek mahaietan eserita kontsumitu beharko dute. Berariaz gomendatzen da establezimendu horietako terrazetan eta horien inguruan ez erretzea.»



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

.- Martxoaren 27koa 16/2021 Lehendakariaren Dekretuak ostalaritza arloan ere neurri berriak ezarri zituen. Besteak beste, 400 etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan, barruko ordutegia 6:30etik 9:30 etara eta 13:00tik 16.30era izango da. Gainerakoetan, 20:00 etan itxiko da. Barneko edukiera %50ekoa izango da. Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 4 pertsona.

**Hirugarrenkoa:**

Irizpen honen zioa da ostalaritza-sektoreko langile eta enpresek zuzenean jasan behar izan duten galera ekonomikoko egoera arintzea eta derrigorrean itxi behar izan duten establezimendu eta pertsonen laguntzea osasun-krisialdiagatik hartutako neurriak amaitzean beren jarduerari berrekiten eta eusten. Hala, arindu egingo dira jarduerak aldi-aldi sortzen dituen kostu finakoak

**Laugarrenkoa:**

Mahai, mahaitxo, aulki, zoladura, loreontzi, itzalkin edo antzeko tasa Udal bilkura osoak, 2020ko irailaren 30ekoak, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zena, onartu zuen era honetara:

*Mahai bakoitzeko kuota urtean .....86,05 euro.*

*Taberna bakoitzaren Mahai kopurua aurreko urteko erreferentziarekin kalkulatuko dira.*

*Udalak ikuskapenak gauzatuko ditu urtean zehar. Ikuskapeneko txostenean aurreko urteko likidazioan azaltzen diren mahai kopuruaren gaintik jarri dituztela ziurtatuko balitz, ikuskapeneko txosteneko kopurua izango da urtean likidatuko dena .*

*Tasa ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkien tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko baitira.*

*Taberna kanpoan kupelak edo antzekoak ezartzeagatik kupeleko..... 21,50 euro.*

**Ordenantza fiskalaren testuan hau gehituko litzateke:**

“11/2020 Foru Dekretu arauaren ondorioz, ostalaritza lokal eta jatetxeei dagokienez, 2021 ekitaldian, mahaiak, aulkiak eta antzeko instalazioak ateratzeko aukera edukiko balute, 2020ko mahai kopuru berbera alegia, 2021eko abenduaren 31 arte %100 hobaria ezarriko zaie tasa honetan”.

**OINARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK**

**1.- ORDENANTZA FISKALA**

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, 7. artikuluan ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalerriei dagokiela, Foru Arau honek ezarritakoaren esparruan, bere zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

biltzea, eta ekintza horiek egiterakoan ez dira kaltetuko udal zergak arautzen dituzten foru arauetan eta horiek garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan ezartzen diren espezialitateak, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hau garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

Beren ordenantza fiskalen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek, aurreko atalean aipatzen den araudia bakoitzaren barne antolamenduaren eta funtzionamenduaren arabera egokitu ahal izango dute, eta egokitzapen hori ezingo da araudi horretan jasotako eduki materialaren aurkakoa izan.

## 2.- ORDENANTZA FISKALEN EDUKIA:

Ordenantza fiskalek, gutxienez, ondokoa jasoko dute:

A/ Egintza ezargarri, subjektu pasibo, erantzule, salbuespen, murriztapen eta hobari, oinarri zergagarri eta likidagarri, karga mota edo tributu kuota, epealdi ezargarri eta sortzapenaren zehaztapena.

B/ Aitorpen eta sarrera erregimenak.

C/ Bere ezarpenaren onespén eta hasiera datak.

Ordenantza Fiskal hauen onespenerako akordioak, dagozkien tributuak ezartzeko akordioekin batera hartu beharko dira.

Aipatu ordenantzak aldatzeko akordioek, ukituriko arauen idazketa berria, beren onspén datak eta beren ezarpen hasiera jaso beharko dituzte.

## 3.- COVID 19 AGATIK ONARTUKO DIREN HOBARIEN AZTERKETA EKONOMIKOA

### 3.1 Mahaien tasa:

2020ko mahaien tasaren likidazioan oinarrituz, 2021 urteko diru sarrera 21.426,36 € izango litzateke, eta hau da hobari honek suposatzen duen dirusarreraren murrizketaren kopurua.

## IRIZPENA

**LEHENENGOA.-** 2021erako Ordenantza fiskalak aldatzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraina edukiz, aldatutako testuak honela geratzen direlarik:

### 1.1.- MAHAI, MAHAITXO, AULKI, ZOLADURA, LOREONTZI, ITZALKIN EDO ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK.

Mahai bakoitzeko kuota urtean .....86,05 euro.

Taberna kanpoan kupelak edo antzekoak ezartzeagatik kupeleko..... 21,50 euro.





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Taberna bakoitzaren Mahai kopurua aurreko urteko erreferentziarekin kalkulatu dira.

Udalak ikuskapenak gauzatu ditu urtean zehar. Ikuskapeneko txostenean aurreko urteko likidazioan azaltzen diren mahai kopuruaren gaintik jarri dituztela ziurtatu balitz, ikuskapeneko txosteneko kopurua izango da urtean likidatu dena .

Tasa ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkien tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko baitira.

11/2020 Foru Dekretu arauaren ondorioz, ostalaritza lokal eta jatetxeei dagokienez, 2021 ekitaldian, mahaiak, aulkiak eta antzeko instalazioak ateratzeko aukera edukiko balute, 2020ko mahai kopuru berbera alegia, 2021eko abenduaren 31 arte %100 hobaria ezarriko zaie tasa honetan

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jartzea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16.1. artikuluan xedatutakoa betez, bitarteko ofizial honetan, Udaleko iragarki-taulan eta Gipuzkoan zabalkunde handieneko egunkarian iragarkiak argitaratuta, aipatutako artikuluan, 2. idatz-zatian, adierazitakoaren arabera, eta arau hauei jarraituz:

a) Agiriak erakusgai dauden lekua: Udaletxeko Kontuhartzailletzan.

b) Agiriak aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarki hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

Honako hauek egin ditzakete erreklamazioak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazitakoak.

Erreklamazioak aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorra. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkez daitezke erreklamazioak.

Erreklamazioen hartzailea: Udalbatza osoa.

**HIRUGARRENA:** Informazio hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, behin betiko bilakatuko dira hartutako erabakiak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko maiatzaren 20an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen. Hau izan zen emaitza:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz , Iraitz Otaño, Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitia andreak ostalariekin neurri batzuk hartuko zirela esan zela dio, terrazen tasa ez kobratzeko, eta aparte dirulaguntza lerro bat ere jarri zela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ate bat ireki du hobari hauek aplikatzeko, hitzez esandakoa administratiboki tramitatzeko.

Jose Joakin Etxaniz jaunak baiezko botoa iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko Ordenantza Fiskalen aldaketa, ostalarientzat mahai, mahaitxo, aulki, zoladura, loreontzi, itzalkin edo antzeko instalazioengatik dagokien tasetan Covid 19 gaitzaren krisiaren ondoriozko aparteko hobarien inguruan, onartzea aho batez erabaki du.

## **6.- BEHIN BETIKO ONESPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak honako behin betiko onespenen berri eman du:

*“2021eko martxoaren 31n Udalbatzak onartutakoak eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartuak:*

*Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko Udaleko 1 zenbakidun espedienteak.*

*2021eko Aurrekontuan onarturiko bigarren konpromiso kreditua bertan behera uztea, eta 1/2021 konpromiso kreditua.*

*Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Zubiaurre-Elkargune Institutuko 1 zenbakidun espedienteak.”*



## 7.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	<b>Behin bet. aurr.</b> <i>Pres. def.</i>	<b>Baimendua</b> <i>Autorizado</i>	<b>Erabilia</b> <i>Dispuesto</i>	<b>Onart. oblig.</b> <i>Contraído</i>	<b>Ordainketa</b> <i>Pagado</i>
Oraingo ekitaldia/ <i>Ej. corriente</i> GASTUAK	17.710.901,59	7.879.703,20	7.320.367,57	4.092.353,76	3.922.442,10
	<b>Behin bet. aurr.</b> <i>Pres. Def.</i>	<b>Onar. esk. Garb</b> <i>Dchos. Recs..</i>	<b>Bildut-garbia</b> <i>Recaudado</i>	<b>Kobr. Dagoena</b> <i>Pte. cobro</i>	<b>Itzulketak</b> <i>Devoluciones</i>
Oraingo ekitaldia/ <i>Ej. Corriente</i> SARRERAK	17.710.901,59	5.619.017,69	2.476.700,00	3.142.317,69	85.841,76

## 8.- GALDE ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta hogeit hamar minutu direnean eta nik, Administrazio Orokorreko Teknikariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**ALKATEA**

**ADMINISTRATIO OROKORREKO TEKNIKARIAK**

*\*Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021PLEN0011-Akta/Acta ()